

JOAN GURUTZEKOAREN «CANTICO ESPIRITUAL» EUSKARAZ: ERKAKETA ETA KRITIKA

Euskal irakurleari Joan Gurutzekoaren «Cántico Espiritual»en euskarazko lau itzulpen bere kritika gonbaratu eta guzti aurkeztean, mende honetako adituen eritziz, munduko poesiaren lanik bikainenetakoa eskaintzen dugu.

Lana hiru zatitan sailkatuko dugu:

1. Kantikoaren jatorria eta balio poetikoa (Julen Urkiza).
2. Lau euskal itzulpenen metrikaren ikerketa (Patxi Altuna).
3. Lau itzulpenen iruzkin kritikoa testu orijinalarekin erkatuz (Xabier Mendi-guren).

I

KANTIKO IZPIRITUALAREN JATORRIA ETA BALIO POETIKOA

Lehen-lehenik, Kantikoaren iruzkina egiten hasi orduko, haren problematika argitu beharra dago: poesiari soil-soilik dagokiona eta santuak bere poesiari egindako iruzkinari dagokiona. Hemen, poesiaren arloa aztertuko dugu soilik. Poesiaren bi idazketa ezberdin dira: 39 ahapalditakoa bata (A) eta 40takoa bestea (B); gainera, hurrenez hurren ordena ezberdinetan daude batean eta bestean.

1. Kantikoaren jatorria eta problematika

XVI. mendeko Europa eta bereziki Gaztela pil-pilean zegoen; irakindegi erlijioso, sozio-kultural eta politikoa zen. Mugimendu izpiritual garrantzitsuak sortzen ziren, baita mundu ezezagunen aurkikundeak burutu ere... Ekintza izpiritualen eta berrikuntza sozio-politikoaren giro honetan aurkitzen dugu Joan Gurutzekoa, bera ere, Karmengo Ordenaren barruan, buru eta bihotz mugimendu izpiritual berri batetan murgildua.

Horrela, barruko eztabaida eta liskar artean, mugimendu izpiritual berri horren buru zenez gero, Joan atxilotua izan zen. Isilpean Toledoko Karmeldar Fraide Zaharren komentuko gela-gartzela batetan sartzen dute, ia argirik ez arnasa hartzeko irekidurarik ere ez zuen gela zahar batetan. Gartzela horretan igaroko zituen 35 urtetako fraide hark negu gorri jasanezina eta uda kiskalgarria. Joan ahulduta, zeharo jota dago eta bere burua ia hil zorian ikusten du.

Han, bakardade gorrian, iraindua eta bertan behera utzia, literaturaren historia osoan izan denik eta lirikorik bikainenetarikoa sortzen da; han gauzatu zen Kantiko Izpiritualaren atalik nagusiena: lehen idazketaren edo AK.aren lehen 31 ahapaldiak; 1577. eta 1578.eko urteak ziren. Geroago bi alditan burutuko zituen gainerako ahapaldiak: 32.etik 34.era 1580.etik 1581.era bitartean, eta 1582.etik 1584.era bitartean 35.etik 39.era bitarteko ahapaldiak, geroago beste ahapaldi bat gehituz; ahapaldi hau, bigarren idazketan, hots, BK.an 11.a da.

Bi idazketa (A eta B) izanik, hamaikaxto eztabaida sortu izan da historian zehar, benetan biak Santuarenak ote diren ala ez. Bakoitzaren joera poetiko eta literarioen edo eta filosofiko-teologiko eta pentsamoldeen arabera, bata bestea baino fidagarriagozat jotzen zen.

Joan Gurutzekoa, bere nortasunaren alde ezberdinei dagokienez, hain handia denez gero, zail gertatzen da ustez elkarren aurkakoak diren kualitate batzu pertsona berarenak direla pentsatzea: alde batetik poetaren «desordena» harrigarria, kreaziórako indar berezia, ederraren sen fin-fina, bizitasun aske eta freskoa; beste aldetik, berriz, filosofo eta teologoaren logika zorrotza, izpiritubidea egoki adierazi eta ulergarri egiteko sailkatze argi eta garbia... Baina hala ere ez dago kontrakotasunik Joanen bi alde horien artean: poeta gisa handia bada, filosofo-teologo eta maisu gisa ere handia da.

Gaur egun bi idazketak Santuarenak direla aitortzen da aho batez.

Bi idazketen arteko ezberdintasunik nagusienak hauak dira: **B**-k edo azkenengoak ahapaldi bat gehiago du, 11.a; eta bi idazketen arteko ordena-aldaketa ondorengo eskema honetan ikus genezake:

AK	BK	AK	BK	AK	BK	AK	BK
1	— 1	11	— 12	23	— 32	34	— 35
2	— 2	13	— 14	24	— 33	35	— 36
3	— 3	14	— 15	25	— 16	36	— 37
4	— 4	15	— 24	26	— 17	37	— 38
5	— 5	16	— 25	27	— 22	38	— 39
6	— 6	17	— 26	28	— 23	39	— 40
7	— 7	18	— 27	29	— 20		
8	— 8	19	— 28	30	— 21		
9	— 9	20	— 29	31	— 18		
10	— 10	21	— 30	32	— 19		
	— 11	22	— 31	33	— 34		

2. Kantikoaren balio poetikoaz oharpen orokorrak

Gaztelaniazko literaturaren historian zehar Joan Gurutzekoaren kritikakaldi ezberdinak ezagutu izan ditu. Hain zuzen ere, XX. mende honetan egin den kritika sakon eta zorrotzak berea eman dio, Joan Gurutzekoaren balio poetikoa ederretsiz eta hura poesia lirikoaren goi-goian, Olinpo-ren gailurrean jarritz.

a. *Miraria ala beren-beregizko artea?*

Gaztelaniazko literaturaren kritikan oso interesgarriak dira Damaso Alonso-ren ikerketak. Kritiko handi honek, «*Poesía Española*» deritzan liburuan, orrialde ugari eskaintzen dizkio Joan Gurutzekoari «El misterio técnico de la poesía de S. Juan de la Cruz» izenburuz (Madrile^s 1976; 2. berrargitarapena, 217-305 orr.); 1942. ean «La poesía de San Juan de la Cruz (desde esta ladera)» izenburupean liburutxo bat idatzi zuen. Lan hauetan Joan Gurutzekoaren literaturak beragan sortu zuen harridura edo mirespena adierazten digu.

Damaso-k dioskunez, Joan Gurutzekoa ez zebilen **artea arteagatik** sortu nahirik; Santuarentzat artea berez ez zen ezer, ez zuen ezer esan nahi; Jainkoa zen guztia betetzen zuena. Kritiko honek beste hau ere badio: Santua es zela formaren edertasunaz arduratzen eta, behar bada, ez zuela jakin ere egingo hori zer zen. Bere muina duen Jainkoaz dago oso-osoa liluraturik. Honela dio: «Este hombre no es un artista, pero supera —aún en el arte que no se propuso— a esos grandes artistas».

«Esos poemas (el *Cántico espiritual*, la *Noche* y la *Llama*), esas coplas (*Aunque es de noche* y *Tras un amoroso lance*) son tales, que la literatura mundial no ha producido nada de una emanación más nostálgicamente perturbadora, donde cada palabra parece haber recibido plenitud de gracia estética, con una transfusión tal que

nuestra alma, virginalmente creada, impelida abrasadoramente, no ha sentido nunca más próximas las extremas delicias.

Henos aquí, pues, en el borde sobre el precipicio, empujados, sin posibilidad de retroceder: allá abajo es donde la razón humana se nos va a romper en mil partículas.

No queda sino abandonarnos en los brazos de Dios. Y exclamar, como yo ahora exclamo:

— ¡Por San Juan de la Cruz, creo; creo en el prodigio!».

Beste batzuk, ordea, azkenaldi honetan, Colin P. Thompson (*The Poet and the Mystic. A study of the «Cántico espiritual» of San Juan de la Cruz*. Oxford 1977, XI-188 orr. Gaztelaniazko itzulpena 1985.ean), José C. Nieto (*Místico, poeta, rebelde, santo: en torno a San Juan de la Cruz*, México-Madrid-Buenos Aires 1982, 335 orr.) beste bide batetatik eraman nahi lukete kritika literarioa. Hauek ere aitortzen dute «Urrezko Aroan» berezi-berezia dela haren poesia, baina hainbeste irudi literario eta sinbolo hain ezberdin eta aberatsak darabiltzanez gero, Santua ongi jabetzen zela erabilitako estetikaz eta bere arte-lanaz.

Egia esan, ahapaldi motak, errimak, aliterazioak, lexikoa, sinboloak etab. aztertzen baditugu, Santuaren poesian, Damaso Alonso-k dioenez, freskotasuna, birjintasuna, jatortasuna nabari da: «Su expresión es más fuerte, más impregnante, más sintética que la de otros que tanto hemos saboreado. Hay en él una rapidez, una condensación, una intensidad abrasadas y penetrantes».

b. Jainkoaren bilaketa eta estilo literarioa: haien arteko zerikusi miragarria

Santuaren poemaren edertasuna ikusiz, haren alde mistikoak, hots, Jainkoaren bilaketa eta aurkitzeak eta alde literarioak zerikusi handia dutela konturatzen gara. Erlazio horretaz bera jakinean dagoen ala ez, oraingoz alde batera uzten dut.

Santu artista honek gainerako literaturan ezezagunak diren hainbat alderdi eder agertzen dizkigu. Lerro hauetan gauza orokor batzu aipatu baino besterik ezin dut egin: Kantikoan kontutan hartzekoa da une batzuetako arintasun zoragarria eta gozatze edo maitemintze astitsua nola adierazten dituen bikainki hizkuntzaren bidez.

aa. Hizkuntza maitasunaren bilaketaren zerbitzuan

Harrigarria da Kantikoari lehen 11 ahapaldietan ematen dion arintasuna: 55 lerro epitetorik eta izenondorik gabe! Izenondo analitikorik ez da ageri. Joanek, ahapaldi hauetan, Jainkoaren bilaketa arintasuna lehiatsuz adierazten du, Jainkoarekin elkartzea nahi du. Horrela, epitetoak kenduz, arintasuna ematen die lerro eta ahapaldiei; lotura estua eta trinkotasuna lortzen du ahapaldi hauetan. Ugari dira izenak soil-soilik, eta batzutan aditzak ere bai... Maitearekin elkartzea nahi du; ez da loreen gozamenen gelditzen, ederraren Egileagana jotzen du zuzenki. Bere maitemina arintasun, trinkotasun eta bizitasun suharrez adierazten du:

*«A dónde te escondiste,
Amado, y me dejaste con gemido?
como el ciervo huíste,
habiéndome herido;
salí tras tí clamando, y eras ido».*

Eta Damaso Alonso-k honela diosku (293. orr.): «Es el primer grito, el primer alarido de abandono, del preso en la cárcel de Toledo. Y es la palabra, el prodigio de la palabra del hombre, neta, desnuda, en toda su hiriente fuerza de expresión. ¡Cuán densa es toda la estrofa, cómo está cargada de pasión y de drama, de acción y de sentimiento, de incidencias parciales y de sentido totalizador! ¡Cómo en el último verso “*Salí tras tí clamando y eras ido*” se condensan relaciones gramaticales y operaciones humanas, la esperanza activa y el desaliento, el grito y la desolación!».

Artzainei, baso eta zelaiei, izaki guztiei eta izadiari Maitea non den galdetzen die; erantzunak oraindik gehiago samintzen du, bertso bikain bat sortzen zaio, itxuraz akastuna, ohizko erritmoaren azentua ere hautsiz, eta bere sentimenduen zehazgabetasun eta esanezina era miragarritz adierazten du intuizio kreatzailez erabilitako aliterazioaren bidez: «*un no sé qué que quedan balbuciendo*». Aipaturiko aliteraziodun zalantza horri *balbuciendo* aditz-ekintzaz ematen dio borobiltasuna.

Arintasun hau eman ahal izateko hamaika silabatako bertsoa hautatzen du, azentua seigarren silaban duela.

Izenaren nagusitasuna nabari da; baina batzutan aditzak ere pilatzen ditu: «*decidle que adolesco, peno y muero*», ekintza eta bilaketaren arrazoiak markatuz.

Baina benetan interesgarria da, egoera aldatu ahala, nola aldatzen duen estiloa ere zeharo: Aurkitu du bere Maitea, Jainkoa... Orduan hizkuntza pausatua gohurtzen da; denbora gelditu egiten dela dirudi, elkar aurkitze hori adierazteko hitzetan gozatzen da hizkuntza. Hizkuntza, orain, beste alderaino doa: lehen, 50 lerrotik gora, izenondo bat ere gabe! Orain, berriz, bat-batean multzoka datoz:

*«Mi Amado, las montañas,
los valles solitarios nemorosos,
las ínsulas extrañas,
los ríos sonoros,
el silbo de los aires amorosos;*

*la noche sosegada
en par de los levantes de la aurora,
la música callada,
la soledad sonora,
la cena que recrea y enamora».*

Bilaketaren abiadarik ez da orain, ezta hizkuntzaren arintasunik ere. Maitalearen egoera aldatu egin da, baita hizkuntzaren estiloa ere. Orain beste era estilistiko bat

nabari da. Orain behin eta berriro epiteto eta izenondoak erabiliz gainera, aliterazioetan jostatzen da izenondo magikoekin; adibidez, s letraz baliatuz egindako aliterazioak:

«...*las montañas,*
los valles nemorosos,
las ínsulas extrañas,
los ríos sonorosos,
el silbo de los aires amorosos,...
la soledad sonora...».

Egia esan, lehenago ere jo izan du horretara; adibidez: «*pasó por estos sotos con presura*». Beste aldetik bai hoskidetasun handiko errimak gertatzen direla hauek: *Aurora, sonora, enamora!*

bb. *Berriaren eta ederraren sortzaile*

Damaso Alonsok izenondoan urritasun ertzekoari eta oparotasun ertzekoari «uhin sistema» («sistema ondulatorio») deitzen dio. Horrekin haren sisteman ez dela orekarik esan nahi du; ertz batetik bestera doala, maitalearen egoera ere horrelakoa delako.

Joan Gurutzekoak ordura arte besteentzat baliagarri izandako moldeak hautsi egiten ditu, oraindik ederragoa den zerbait sortzeko. Ohizko formak hartzen ditu bai, baina haietara gehiegi makurtu gabe, Jainkoaren bilaketa eta aurkitzeak ematen dion askatasunez. Santuak ahapaldiaren ohizko egitura erregularra hautsi egiten du, gauza ederrago bat sortzeko, *Pastorcico* izeneko olerkian gertatzen denez. Damaso Alonsok dioenez, Joanez, beste poeta handietariko inor egiten ausartu ez dena, egin du. Baina hark gauza berri bat sortzen du, ia bakarra.

Gauza bera esan daiteke Santuak asmatutako marrazki hartaz ere: Joan Gurutzekoak, goi-ikuspen bat izan ondoren, berehala Kristo urratu eta gurutzean eskegia marrazten duenean, ez da milaka urtetan zehar erabili izan den perspektibaz baliatzen; perspektiba berri bat sortzen du, goitik beherakoa edo «txoriaren perspektiba» deritzona sortzen du, mende batzueko geroago hori erabiliko zuten pintoreei aurrea harturik. Pinturaren historian ere Santuari dagokio perspektiba hori asmatzearen ohorea. Geroago, Salvador Dalí-k hura hartu zuen abiapuntu «*El Cristo de San Juan de la Cruz*» deritzon koadru ospetsua egiteko.

Santuak aurrez finkaturik zeuden estetika-bideak ez ditu hain erraz onartzen, ez poeta gisa eta ez pintatzaile gisa; baina estetika berri eta ederragoa sortzen du. Baina aurreko moldeen aurka joate hau, ez dut uste, berak jakinean eta beren-beregi egiten zuenik; horregatik ez deritzat zuzen, José C. Nieto-k egiten duenez, kontraktasun kontziente eta gogorra hari egoztea. Hala ere badago horrelako zerbait, baina beste ikuspegi batetatik azalduko nuke nik.

Marrazki hori benetan konturaturik, sortzen ari zen estetikaz jabeturik egin ote zuen? Egia esan, ezetz uste dut. Baina hori hor dago, pinturaren historian kasu bakan eta lehenengoa bezala.

Berriro lehengo auzira bihurtuz, hots, Haren literatura berezko miraritzat ala kreaizio kontzientetzat hartu behar den, marrazki hau kontutan izanik, Damaso Alonso nahiko zuzen ari dela bere kritikan esan behar. Egia esan, Santuak estilistika-gaiak ikasiak zituen; beraz, haren arte-lanak ez dirudi ezerezetik sortuak zirenik: aurrez bazuen literaturaren ezagupen sakon samarra; baina haren izpiritu artistikoa, bera konturatu gabe ere bai, Jainkoa bilatu eta aurkitzean bizi izandako esperientzia ederraren bultzadaz ari da. Haren estiloa, intuizioz, izadi osoan somatzen duen Jainkoaren edertasunaren pizipenak bizkorturik dago.

Guzti horren fruitua *Kantikoa* dugu, munduko literatura osoan denik eta poemarik bikainenetarikoa. Hango irudietako freskotasuna, berezkotasuna eta ausardia! Hango adierazpideen lilura eta grazia! 39 (40) ahapaldietan nabari den sentimenduen su bizia, joran gartsua! Apostrofoak, galdera markak, alegoriak, gonbaraketak, metaforak, metonimiak, aliterazioak, onomatopeiak... hamaikatxo figura darabil poeta handi honek!

Sarreran adierazi den asmoa kontutan izanik, *Kantikoaren* arte aldetiko hainbat gauza aipatu gabe uzten ditut. Eta Damaso Alonso-ren azken pasarteaz (305.orr.) amaitzen dut: «Llama rauda, veloz, dulcemente heridora, a ratos remansada en perfume y pausada música, del estilo de San Juan de la Cruz. Sí; hemos comprendido el estilo de San Juan de la Cruz como el de una hoguera, con intervalos pausados o un saltar frenético de las llamas, como una hoguera bajo el viento».

JULEN URKIZA
Zornotza-Larrea

ORIGEN Y VALOR POETICO DEL CANTICO ESPIRITUAL

Es reconocimiento general de la crítica literaria de este siglo que Juan de la Cruz es uno de los mayores poetas de la historia universal; y su mejor exponente es el *Cántico Espiritual*: para unos críticos este *Cántico* es un auténtico «prodigio» literario, y para otros es una creación consciente de un literato excepcional. Tanto en un caso como en otro se observa que la búsqueda de Dios y su encuentro gozoso influyó positiva e intuitivamente en el estilo artístico del *Cántico*: hay una prodigiosa interdependencia entre el estilo literario y la búsqueda ansiosa de Dios y su encuentro, de tal modo que fue capaz de crear nuevas formas estéticas.

ORIGINE ET VALEUR POETIQUE DU CANTIQUE SPIRITUEL

C'est l'opinion générale de la critique littéraire de ce siècle que Jean de la Croix est un des plus grands poètes de l'histoire universelle; et la meilleure preuve en est le «*Cantique Spirituel*»: pour quelques critiques ce *Cantique* est un authentique «pro-dige» littéraire, et pour d'autres c'est la création consciente d'un homme de lettres exceptionnel. Dans un cas comme dans l'autre on remarque que la recherche de Dieu et sa rencontre heureuse ont influencé positivement et intuitivement le style artistique du *Cantique*: il y a une prodigieuse interdépendance entre le style littéraire et la recherche ardente de Dieu et sa rencontre, de telle manière qu'il a été capable de créer de nouvelles formes esthétiques.

II

LAU ITZULPENON METRIKA

Aztergai ditugun lau euskal itzulpenak elkarren artean lehenik eta gaztelera-zkoarekin gero berdintzen hasi orduko, berezitasun nabariak ageri dira ahapaldien formari bakarrik so egiten diogularik ere. Honek hiru alderdi ditu ezinbestekoak Gurutzeko Joanek ondu duen bezalako edozein kantu edo olerkiren ahapaldi bakoitzean: moldea, bertso bakoitzaren silaben kopurua eta puntua. Horiek mugatzen dute eta definitzen erabili den ahapaldi mota. Orain bada, hemen itzulgai izan den gaztelera-zkoaren moldeak bost bertso ditu dudarik gabe; bertsoen silaben kopurua 7-11-7-7-11 da eta puntua berriz bitarikoa: lehen eta hirugarren bertsoena batetik eta beste hirurena bestetik. Alegia, ahapaldi bakoitzaren eskema hau da:

A 7
B 11
A 7
B 7
B 11

Euskal itzulpenetara iraultzen garelarik, laster ohartzen gara ez datozela osoro bat hiru alderdi horietan ez beren artean, ez eta gaztelera-zkoarekin. Esan nahi baita, moldean edota bertsoen silaben kopuruan edota puntuan aldentzen direla gaztelera-zkotik, bai eta elkarrengandik. Bestela esan, Gurutzeko Joanen ahapaldien guztiz antzekorik ez du lauretarik inork tolestatu. Ikus dezagun zergatik.

Moldeari gagozkiola, Orixe bakarrik urrundu da eredutik; bestek ez bezala sei bertsoetako moldea hobetsi du itzulpena egiteko garaian, eta ez, norbaitek uste lezakeen bezala, gazteleraizkoaren hizkera trinko eta ertsiak eremu zabalagoa izan zezan euskaraz, silaba bat galtzen atera baita ahapaldi bakoitzean (43 eta 42 guztira); beste hiru itzultzaileak aldiz ereduari lotu zaizkio.

Silaben kopuruaz den bezanbatean, laurak erabat bereiz dabilta elkarrengandik. Onaindia da gazteleraizkoari ertsiki atxiki zaion bakarra, neurri berberak erabiliz. Akesolok nahiago izan du bertso txikiak silaba bat luzatu eta luzeak beste bat laburtu, honelakoez 8-10-8-8-10 baliaturik. Orixez zazpitakoak egin ditu sei bertsoak. Gazteluk azkenik ez du legerik, berak ezarria eta asmatua baizik; hots, ez du silaben kopuru jakinik ia ezein bertsoan; bestela esan, bere itzulpenean ahapaldiaren bost bertsoetatik ez da bat ere kantuan zehar *beti* silaben kopuru jakina duenik, eta hori jakinarean gainean eta euskal neurtizkeraz berak dituen iritzien arabera, gero azalduko dugunez.

Azkenik puntua dela eta, diogun Akesolok bakarrik egin dituela hoskide, Gurutzeko Joanek bezalaxe, bigarren, laugarren eta bosgarren bertsoak batetik eta lehena eta hirugarrena bestetik. Onaindiari aski iruditu zaio bertso luzeak, bigarrenak eta bosgarrenak alegia, puntua eramatea, Gazteluri bezalaxe, eta Orixez ezinbestean bertso preak errimarazi ditu.

Hona beraz elkarren ondoan bakoitzaren berezitasunak:

<i>Joan Gurutzekoa</i>	<i>Gaztelu</i>	<i>Orixe</i>	<i>Onaindia</i>	<i>Akesolo</i>
A 7	-	- 7	- 7	A 8
B 11	A	A 7	A 11(6+5)	B 10(5+5)
A 7	-	- 7	- 7	A 8
B 7	-	A 7	- 7	B 8
B 11	A	- 7	A 11(6+5)	B 10(5+5)
		A 7		

Gazteluren bertsoen silaben kopurua ez dugu seinalatu lehen esanagatik eta gero osatuko dugunagatik. Onaindiak eta Akesolok, hor ikusten denez, bi hemistikiotan banandu dituzte gainera bertso luzeak, batak seigarren silabaren eta besteak bosgarrenaren ondoan zesura eginik, bataren nahiz bestearen zenbait dudamudazko bertso gorabehera. Hala nola, Onaindiaren 13garren ahapaldiaren bosgarrena («muño-gain, eder daula otz-aroa») eta 27garrenaren bigarrena («an irakats eustan eztizko jakintza»), eta Akesoloren 20garrenaren bigarrena («leoi, orein, orkatz triskarroi») eta 3,22 eta 34garrenen bosgarrenak («ta arresi ta mugak iragango»; «bere Maitearen besartean»; «ibar orlegien abaroan»). Orixerenean hirugarren ahapaldia oker dago, edo gainerakoak ez bezala bederen; bigarren eta hirugarren bertsoak trukatu behar lirateke puntua ongi egoteko, baina agidanean nekez onartzen zuen hori euskal sintaxiak esan nahia aldatu eta itsusitu gabe eta badirudi bere horretan utzi zuela, inprimategiko hutsegitea ez bada behintzat.

Beraz egia da lehen esan duguna: Gurutzeko Joanen ahapaldien guztiz antzekorik ez duela lauretarik inork tolestatu. Eta ez noski hori euskaraz ezin egin zitekeelako, bi itzultzaile ereduari arras hurbil ibili baitzaizkio. Akesolok aski zukeen bertso txikiak silaba bat laburrago eta handiak beste bat luzeago egitea, Onaindiak egin duen bezala; hau berriz silaben kopuruan ereduaren pareko izan delarik, puntuaren aberastasunean gelditu da motz. Honen jokaeraren arrazoa errazago da ulertzen, ez baita txantxetako lana horrelako kantu luzean barrena —eta itzulpen batean batez ere— ahapaldiaren bost bertsoak errimaraztea. Sendagaila hori burutu du Akesolok, hizkeraren trebetasun eta menderatasun ikaragarria erakutsiz, eta aldiz errazago zirudien silaben kontuan hautsi du erdua. Zergatik? Bereak euskal tradizioan ezagunagoak direlako? Esan beza berak.

Ni hemen itzulpen hauek formaren aldetik bakarrik aztertzen ari bainaiz —eta ez itzultzaile bakoitzak berean erabili duen hizkeraren aldetik, ez eta itzultzerakoan kantuaren muinarekiko agertu duen edo ez duen zintzotasunaren, nahiz lotsarenetik—, ez dut besterik esateko Orixek, hauxe izan ezik: Mitxelenak Gazteluren *Musika ixilla* deritzan liburuari egin zion kritikan esana (ik. MEIG III, 105-108 or.) ez dihoakiola itzulpen honetako Orixeri, beste batzutakoari baizik. Mundu guziak dakien bezala, izan ere, Orixe ez da beti bat edo, nahiago bada, Orixe bat baino gehiago da, bide askotatik ibili zen, ñibirri-ñabarra zen. Eta baldin Gazteluk, han Mitxelenak zioen bezala, «eredu berri bat (Orixek behinola, oker ez banago, segitu zuena Prudenzioaren zenbait itzulpenetan)» aurkezten duela egia bada ere, den bezala, ezin daiteke gauza bera esan, eta ez dio inola ere Mitxelenak, Orixeren itzulpen honezaz. Hori dioenean, Orixeren beste itzulpenak ditu gogoan, bada hemen Orixek, Gazteluk ez bezala, silaben kopuru jakineko bertsoak ondu ditu, gorago esan bezala.

Eta Gazteluk zer? Besteen itzulpenetan ez bezala, honenean ez dut silaben kopururik markatu, eta ezin marka nezakeen, Gazteluk berak galerazten baitigu markatzea, are kontatzea. Hona zergatik. Honek bere liburuan euskal neurkeraz zituen iritziak azaldu zituenean, horien arabera eginiko Gurutzeko Joanen zortzi olerkiren eta Fray Luisen hamarren itzulpenak eskaini zizkigun. Orixek liburuari ezarri zion hitzaurrean garbi agertzen du ez datorrela bat Gazteluren iritzi horiekin. Nik ere neure tesi-liburuan (ik. *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*, 115-120 or.) adierazi nuen iritzi horien kontra nuena eta ez dut hemen berresango, orduan uste nuena uste baitut orain ere. Nahiago dut Mitxelenak lehen aipatu artikuluan zioenaz baliatu.

Euskal poetek bertsogintzan darabilten euskal neurkera Gazteluri ez zaiola ez egokia iruditzen ez jatorra baieztatu ondoren, honela biltzen du haren dotrina: «Gazteluren ustez, ez lukete silabek izan behar —Detxeparez gero, gutxienez, diren bezala— euskal neurtitzen oinarri: «Zoritxarrez (dio Gazteluren hitzak aldaturik) aukera izan dugu neurtizkeratzat zorioneko izki-zenbaketa dalakoa. Neurtizketarako pikoak [ictus direlakoak] zenbatu bear lirake, ez silabak, neurbide errexagoa dana gañera, irakurleak igerri baldin badio». (Eta gero honela jarraitzen da Mitxelena berriz). «Teoria horrek, oker ez banabil, badu beste baten eitea: harako Manuel Lekuona

jaunak bere *Literatura oral euskérica*-n azaldu zuen harena. Pikoak esatea nahiz oinak esatea berdintsu baita». Zilegi bekit berriz neure tesi-liburura irakurlea igortzea, baldin han On Manuel Lekuonaren aburuez idatzi nuena ikasi nahi badu (ik. 96-104 or.).

Hitz gutxitan esanda: hauen ustez euskal bertsoak ontzen dituenak ez ditu honenbeste edo hainbeste silabatako lerroak tolestetzen, ez du silaben kopurua kontutan hartzen, baizik lerroan barrena buruz edo oinez edo behatz muturrez markatzen dituen «takata-takatak». Bertsoaren banakoa, alegia, ez da silaba, *ictus* direlako piko edo takatekoak dira. Eta, jakina, bertsoen egileak horien arabera ontzen baditu bertsoak, zer esanik ez bertsoen neurtzaileak ere —nik kasu honetan, alegia— modu berean neurtu behar dituela, silabak kontatzen ibili gabe.

Bistan da autore hauek eta egungo egunean ere gure artean iritzi bertsuak defenditzen dituztenek ez dutela erritmoa zertan datzan ongi konprenitzen, ene ustez. Laburki esan: erritmoa euskaraz ez datza bertsoa osatzen duten hitzen *barneko* ezertan —ez azentoan, ez pikoan, ez oinean—, baizik hitzetik edo hitzetatik landa dagoen zerbaitean; hots, isilaldietan, pausaldietan, neurri jakineko banakoen ondoren betiere gertatzen diren etenaldietan. Etxepareren hamabost silabatako bertsoei bagagozkie, esate baterako, erritmoa honetan datza: hamabost silabaz behin ez ezik, horietako lehen zortzietz behin, eta zortzi horietako lehen laurez behin, bai eta beste zazprietako lehen laurez behin isilaldia edo urradura gertatzean, eta ez beste ezertan. Honezaz gehiago ikasi nahi duenak jo beza berriz —eta barka!— lehen aipaturiko neure liburura (121. or. eta hurrengoak).

Gazteluren dotri.a horren ondorioak agerian daude eta orain aztergai dugun bere itzulpen honetan nabarmen ageri dira. Har dezagun lehen bertsoa: *Nora zaitut kuku*. Zenbat silaba ditu? Ez zaio axola, erantzuten digu Gazteluk, zenbat piko dituen galdegin behar da. Har dezagun bigarren ahapaldiko lehen bertsoa: *Arditegitik larrera*, guretzat lehengoak adinaxe silaba behar lituzkeena. Bada ez, bi gehiago ditu. Ez zaio antsia, diosku Gazteluk, silaba kopuru bera ez, baina piko kopuru bera dute, eta hori aski da. Eta piko kopuru bera dutela honela frogatzen du:

Norá zaitút kukú = Arditegitik larrerá

Orobat gertatzen da beste bertso askotan ere. Esate baterako, *oreña bezela nigandik* (I,4) bederatzi silabatakoa da; aldiz *lore pinpiñaz bitxi* (IV,4) zazprietako eta *ibai durundatsu* (XIV,4) seitakoa, nahiz hirurak bertso kideak diren ahapaldian. Horra orain agirian, zergatik ez dudan bere itzulpenaren bertso bakoitzeko silaben kopurua seinalatu ahal izan eta are zergatik, esan bezala, berak galeratzen digun lan hori geure gain hartzea.

Ez naiz ni orain hemen abiatuko laur itzulpenetarik hoberena zein den iuiatzen (Doktoreak ditu Eliz Ama santak), nahiz txapela nori eman erabaki behar banu, banekikeen nori eman. Hori bai, beste hirurenez ere esan daiteke gutxienez Mitxelenak Gazteluren itzulpenez idatzi zuena: «Aski eta gehiegi da esatea gutxitan baizik ez

diola iruzur egiten bere itzulpenak aurrean duen eredu goitarrari. Bertso batzuek beteagoak irudituko zaizkigu, eskasagoak beste zenbait, baina, erabat hartuz gero, erdal olerkien errainu bete eta ozen ageri zaizkigu». Hortik aurrera, Mitxelenak berak dioen bezala, bertsoak hizkuntza batetik bestera bertsoan itzultzeko izan behar omen den «anapoeta» izateraino laurak iritsi diren ala ez erabakitzen zaila da. Ni neroni baieztatu erantzunera gehiago makurtuko nintzateke erabat ezezkora baino, edota, apalago dena, ez nioke behintzat bakarren bati ohore hori ukatuko.

Lauretarik hoberena zein den asmatzeak baino gehiago kezkatu nau beste gogoeta batek, halere, lan honetan aritu naizen egunotan. Itzultzaile horietarik bi bizi dira oraindik, eta bizi bitez luzaroan, baina horiek eta horien belaunaldia itzal daitezenean, zer? Euskararen etorkizunaz ez naiz ni zenbait lagun bezain ezezkor. Badakit gainera, euskal literatura zaharrean liburu itzuliak inoren baitatikakoak adina edo gehiago izan diren arren, lehengo marka guziak urratzeko bidean garela, zenbait lagun bizkor eta gartsu eleberrri mardulak euskaratzen ari direlarik etengabe. Baina gatazka horri inongo meriturik kendu gabe eta lan hori egungo egunean behar-beharrezkoa dela aitorturik ere, besteari zailagoa deritzat, eta ez haatik behar txikiagotakoa. Bai al da ordea —eta hau da nere kezka— oraindik bizi diren bi horien ondoko belaunaldian horiek bezala Gurutzeko Joanen olerkiak eta antzekoak itzultzeko gai denik? Horretarako euskara ongi jakin behar da, eta asko jakin, besterako baino gehiago, ene ustez, eta baldin sinesten ez duenik bada, egin beza aproba.

Ez dela ordea aski euskara ongi menderatzea garbi dago. Garai hartako gaztelarazko idazleen hizkerak, batez ere hori bezalako mistiko, goitar eta izkutu horrek, katramila handiak ditu, segurki egungo eguneko eleberrietako ingelesak edo frantsesak adina bai. Ikus ezperen honako ahapaldi honen azkenaldeko hizkera bihurria:

Mas ¿cómo perseveras,
oh vida, no viviendo donde vives,
y haciendo porque mueras
las flechas que recibes
de lo que del Amado en tí concibes?

Eta hizkera mistiko horretan adituxea izan behar delakoxe dira agian lau itzultzaileetarik hiru elizgizon, eta laugarrena, Orixe, edonork daki elizgizon izatetik urrun ibili ez zela eta gero ere ez zebilela. Baina, tira!, eragozpen hori ere gaindi daiteke nolazpait, olerki horien eta antzekoen edizio oharrez ausarki hornituak bai baitira gaztelaraz egungo egunean. Gehiago behar ordea, dirudienez: poeta ere izatea aldi berean eta hori ere aski ez omen delarik, Mitxelenaren ustez, «anapoeta» gainera, «hots, ber-egilea eta ber-sortzailea». Baldintza askotxo, aukeran, guziak bere baitan dituen lagun franko gure artean izateko, eta diodan argi, elizgizonak urrituz doazelako bakarrik ez noski.

Horiek horrela izanik eta azken urteotan hainbeste beka eta diru laguntza han eta hemen agintzen eta ematen delarik, neure baitan diot ez ote lukeen merezi Era-

kunderen batek berandu baino lehen lagun batzu lan horri lotaraztea. Akesolok eta Onaindiak ongi erakutsia dute eginbide horretan antzea eta trebetasuna; gogoia ere ez dute agian falta, biak karmeldarrak direnez gero eta duten adinean sortze lanetarako baino itzulpenetarako isuriago diratekeenez gero. Beste batzuk ere euskal idazle eta are euskal poeta fama ongi merezia dute gure artean eta laugarren baldintza, berriz, «anapoeta» izatea alegia, baldin ez badute ere —ez jakin!—, hartara jarri ez direlako agian, nik dakidala bederen. Hori esatean beren olerkigintzan gai horietara gehiena lerratu izan diren bizpahiru poeta ditut batikpat gogoan: Iratzeder, Gandiaga, Lekuona... Ez ote litzateke eder eta euskal literaturarentzat betiko ardiespen Fray Luis baten, Gurutzeko Juan baten eta Avilako Teresa baten olerki guziak euskaraturik izatea? Nik baietz uste, eder, betiko ardiespen eta beste hizkuntza askok aspaldidanik bereganatua duten paregabeko aberastasun.

PATXI ALTUNA
Donostia

LA METRICA DE LAS CUATRO TRADUCCIONES

En este artículo se estudia el *Cántico Espiritual* de San Juan de la Cruz en cuatro traducciones euskéricas —Orixe, Gaztelu, S. Onaindia y L. Akesolo—, teniendo en cuenta sólo los aspectos formales de las traducciones. Se puede apreciar que ninguna traducción ha imitado *del todo* la estructura estrófica del original (forma del verso, cantidad de sílabas, rima). La que más se le asemeja es la de Gaztelu, quien «desde Detxepare al menos», según Mitxelena, ha repudiado la forma de hacer el verso vasco y según la opinión de Mitxelena, así como la de Manuel Lekuona, se debería aceptar la forma de hacer verso que tiene Gaztelu.

El articulista piensa que merecería la pena de que algunos de entre nosotros (últimos?) que son capaces todavía hoy de realizar traducciones difíciles, continuaran en este trabajo, y de esta forma enriquecer con poetas clásicos la literatura vasca, como se ha hecho en otros idiomas.

LA METRIQUE DES QUATRE TRADUCTIONS

Dans cet article on étudie le «*Cantique Spirituel*» de Saint Jean de la Croix en quatre traductions basques —celles de Orixe, Gaztelu, S. Onaindia et L. Akesolo—, en ne retenant que les aspects formels de ces traductions. On peut remarquer qu'aucune

d'elles n'a imité *tout à fait* la structure des strophes de l'original (forme du vers, nombre de syllabes, rime).

Celle qui lui ressemble le plus est celle de Gaztelu, qui «depuis Detxepare au moins», selon Mitxelena, a renoncé à la forme du vers basque. Mais on devrait accepter cette façon de faire selon son opinion et celle de Manuel Lekuona.

L'auteur de l'article pense qu'il vaudrait la peine que quelques-uns d'entre nous (les derniers?) qui sont encore aujourd'hui capables de réaliser des traductions difficiles, continuent ce travail, et de cette manière enrichissent la littérature basque avec des poètes classiques, ainsi que cela s'est fait dans d'autres langues.

III

LAU EUSKAL ITZULPENEN BATERAKO GAINBEGIRAKETA

Theodore Savoryk dagoeneko klasikoa den *The Art of Translation* (Or.) obran esanaren arabera itzulpen historian zehar ez dela arau zehatzik erabili izan eta autore batek izan duen joeraren parean beste batek haren kontrako joerari heldu izan diola onartzen badugu, ondoren azterkizun ditugun lau euskarapen hauen egileak, hots, Gaztelu (G), Orixe (O), Santi Onaindia (SO) eta Lino Akesolo (LA), bertsoz idatziriko jatorrizkoa bertsoz itzuli behar delako iritzia gutxienez badutela amankomunean aitortu genezake.

Baina Savoryk hamabi puntutan eskaintzen dituen itzulpen-joera kontrajarriak, Goethek *Zu brüderlichem Andenken Wielands*-en erakusten digunez, bi joera nagusitan ardatzen direla esan dezakegu: jatorrizko testua eredu eta erreferentzigune bakarizat hartzen duena edota itzultzailea, irakurlea etab. ardatz direla, orainaldia arautzat hartzen duena. Edozein itzulpen bi polo hauen artean eta bi leialtasun mota hauekiko tiranduran eta oreka lortu nahian kokatzen direla aitortu daiteke.

1922an J.D. Postgatek idatziriko *Translation and Translations* obran, itzulpen joerei dagokienez, bi joera nagusi kontutan hartu beharraz hitzegiten du: atzerabegiratzzailea edo hartzailea (autorea eta jatorrizko testua batipat kontutan hartzen dituztena) eta aurrerabegiratzzailea edo moldatzailea (irakurleaz gehienbat arduratzen dena).

Eugen Nida traduktologo amerikarrak (1964) lehen joerari «*baliokidetza formal*» deitzen dio eta bigarrenari, «*baliokidetza dinamiko*a».

Orain artekoan aipaturiko traduktologoekin zuin hauek begietatik galdu gabe eta berrogei bertsoetako poema laukoiztuaren aipamena egiteko dugun leku mugatuaz

jabeturik, gaingiroki eta punte gisara irazkin bat egiteak dituen arrisku guztiak geure gain hartzera ausartzen gara.

Ni baino adituagoa den batek orrialde hauetan poemaren metrika-gaia aztertuko duenez, erabat albora utziko dut alderdi hori, nahiz eta edozein itzulpenetan osagai semantiko, estilistiko eta pragmatikoak (zer, nori, nola) elkarrekiko oreka estuan eta banaezinean gertatzen diren eta, ondorioz, balioztatutako beharrekokoak izan.

Poemaren Titulua

Jatorrizko titulua «*Cántico Espiritual. Canciones entre el alma y el Esposo*» da eta bi perpaus hauen itzulpenetik hasten dira itzultzaileen arteko erizpide-ezberdintasunak eta aldeak. G-k «espiritual»-en ordaintzat «maite» ematen digu eta joera dinamiko eta interpretatzaile baten ildotik «alma» «arima ezkontide» itzultzen du, «Esposo»-ren baliokidetzat Kristo ematen duelarik «senar»-en orde. «Canción» hitzaren orde euskal usuariozko «oles» hitza, nahiz eta kanta baino areago diosal edo agurra izan.

O-k «iainkorako» hitz adiera murriztagokoa darabil «espiritual»-en orde, eta honek ere G-k bezala «Kristo» hartzen du «Esposo»-ren baliokidetzat, jatorrizkoaren hitzekotasunetik saihestuz. Geroago «esposa» hitza ere «arima»z itzultzen du.

SO-k «barne» hitza aukeratzen du «espiritual»-en labiokidetzat.

Eta azkenik, LA-k bigarren perpausa itzultzetik hasten da eta «Kristo» darabil «Esposo»-ren orde.

Titulu edo idazpuruaren alderaketa honetatik bertatik nabari zaigu neurri bate-raino itzultzaileek hartu duten jarrera dinamiko eta interpretatzailea, nahiz eta ondoren ikusiko dugunez alde nabarmenak egon beraien artean bertsoaren formari dagokionez eta jatorrizkoaren ordainak ematekoan egiten dituzten hitz eta egiturei dagokienez. Jarrera dinamikoa deritzan honen barruan egoteak ez du esan nahi erabat eta puntuz puntu irakurlearen ulerkuntza bati erosotzen denik, zeren poemaren itzulpenak irakurtzea aski baita sarritan jatorrizkoak ez bezalako gorabeherak daudela itzulpenean ikusteko.

Bertso-egitura formal estuena O-k eta LA-k hartutakoak diren arren, bien itzulpenak konparatzean jatorrizkoarekiko baliokidetzeta eta zehaztasun maila ezberdinak ageri zaizkigu.

LA zehazki jarraitzen zaio «lira»-egiturari (7a 11b 7a 7b 11b), baina halere baliokidetzeta semantiko-formal handiagoa ageri du SO eta O-k berek baino. Agian, malabarismoak egitea eta herronkei aurre egitea atsegin zuen O heptasilaboen esparru meharrak estuago hartu izan du eta maniobra gehiago egitera behartu.

Bertso batzuen azterketa alderatua

1. **bertsoaren** azterketak G-ren itzulpena ematen digu zehaztasun semantiko handienekotzat eta LA-rena alderdi formalari dagokionez jatorrizkoari lotuentzat.

Bai O eta bai LA «habiéndome herido», «iota nadukazu maitemin» eta «ni jo ondoren maiteminez» saihestu dira gehien jatorrizkoaren literaltasunak eta literaturtasunak eskatzen zuen «zauritu» aditza G-k eta SO-k jaso duten bitartean.

Lexikoaren hataupenari dagokionez, «kuku», «ostendu», «mingulin», «iñez» jatorrizkoek ez bezalako dialekto-zama dute edota hitzaren mailaz gainetik edo azpitik geratzen dira.

2. **bertso** honetan O-k ez beste guztiek jatorrizkoaren erara «pastores» pluralean itzultzen dute. O-k singularrean eta hitanoa darabilelarik derrigor maskulino gisa interpretatzera behartzen du.

«Majada» eta «otero» hitzen ordez «larrez lar(?)» lizentziaduna eta «larrebidez» ordainak jatorrizkoaren azpitik geratzen dira indarrean eta konkretotasunean. Puntu honetan G eta O hurbilagotik lotzen zaizkio Donibane Gurutzekoari.

3. **bertso** honetan «buscando mis amores» esamoldeak zenbait girabehera sortu dizkie itzulzaileei: G-k pluralean «maiteen bila» itzultzen duelarik, poemaren zentzutik saihestu egin dela ematen du. Bertso eraikitzean erabili dituen elipsi ugariak jatorrizkoak ez duen nekea sortzen du. O-k solaskide bihurtzen du jatorrizkoan hirugarren pertsonan dagoena (zure bila niazu) eta hau badirudi kontraesanean dagoela poemaren logika eta hariarekin.

SO-k substantibo abstrakto singularrez itzultzean (maitasunaren bila) desper-tonatu egiten du figura erretorikoa. Azkenik, LA-k, «maitea non idoroko» erabiltzen duelarik, figura jasotzen ez badu semantikoki zehazkien itzultzen duela esan liteke esamoldearen zentzua. Bertsoaren gainerakoan ez dago alde handiegirik, SO-k «fuer-te» esateko egiten duen «zakarrez» hitzaren bitxitasuna azpimarratuz gero.

4. **bertsoa**: G-k jatorrizkoa irakurriz gero hautazko samarrak diren ordain ugari-txo erabili ditu: plantadas = landuak naro, prado de verduras = zelai ori-uridin, de flores esmaltado = lore pinpiñaz bitxi. O-k edukin semantikoa aski zehazki ematen badu ere «por la mano» ez itzultzean eta sorburu testuko hirugarren eta laugarren ahapaldiak «belardi loretsu» soil batez euskaratzean, bertsoaren alderdi estilistikoa motel geratzen zaio, aliterazioaz konpentsatzen saiatu zen arren. SO-aren «barazki-zelai musker» sintagma bitxi eta harrigarri samarra da, bai baiturudi «verduras»en ordaintzat barazki, ortuari, baratzeko jaki bezala itzultze duela; bestalde «berde»ren sinonimo bezala darabilen «murker» hitza gerraurreko poetek (Lizardi, Orixe) erabili bazuten ere egoskaitz samarra gertatzen da.

LA-ren aukerak, oro har, aski egokitzen jo daitezke eta interesgarria «esmaltado» hitzaren ordaintzat ematen duen «iñaurritako» aditzaz lortzen duen konpentsazio estilistikoa.

5. **bertsoa**: Lehen ahapalditik bertatik hasten dira aukera-ezberdintasunak: G-k eta SO-k bide beretsutik jo duten bitartean, O-k darabilen «zoramen dariola» esamoldea nabarmenkiro jatorrikoaz azpitik gelditzen da. LA-ren «ederrak eder ereinez» esamoldeak bitxi samarra izateaz gainera azken ahapaldian «eder» hitz errepikatzearen eragozpena du. G eta SO-aren itzulpenetan ere eragozpen bera ageri zaigu, izan ere

jatorrizkoak «gracias» eta «hermosura» bi hitz zeharo ezberdin baitarabiltza. Bestalde LA-k «Gizakien erantzuna» itzultzen du «Las criaturas» perpausa, beste euskaratzaile guztientzat «izakiak» izan dena. Oharkabezko akatsa ote da?

«Soto» hitzaren ordainetan ere adostasunik eza banari da: zuazti, ibar, txara ageri dira eta O-k ez du baliokiderik ematen.

«Con sola su figura» sintagmaren itzulpenean «itxura» eta «irudi» hitzen hauptena badaezpadako samarra gertatzen da esanahiaren aldetik. O-k ez du ordainik ematen eta dagoeneko ezaguna dugun hurbiltze eta persolatzearen ildotik, «mirar» aditzaren izenordeak hirugarren pertsonatik lehendabizikora pasatzen ditu (gu ikusiz), beste behin poemaren logika hautsiz.

6. **bertsoa:** Lehen ahapaldian G-k «zerk» eskaintzen du «quién»-en baliokidetzat bertsoaren hari logikoa etenez edo orokortuz behinik behin. Bigarren ahapaldiak nahikoa buruhauste sortu ditu: G-ren eta SO-aren formulak motel geratzen dira jatorrizkoaren parean eta agian O eta LAren irtenbideak onargarriagotzat jo daitezke.

Bertsoaren bukaerari dagokionez, G eta O gehiago aldentzen dira jatorrizkotik SO eta LA baino.

7. **bertsoa:** «Mil gracias» bi bertso aurrerago lehendabizikoz ageri den esamolde hau, bakoitzak lehen itzultzeko erabilia errepikatzea izango zatekeen gomendagarriena estilistikaren arabar; hala ere, hiruk bide berrietatik jo dute: «ainbat eder»(G), «mila zoragarri»(S), «millaka eder»(LA) eta «zoramen» hitz bera errepikatzen duen O-k esamolde adieranitz eta ulergaitz samarra antolatzen du. Hirugarren ahapaldiko «y todos más me llagan» itzultzeko G-k egin duen aukera motelegia ta sorburukoaren indarra ematen ez duena da eta beste hiruek egindako hautapenak: zauritzenago (O, SO) eta «zauri barriz joaz» (LA), hasierako bertsoan ageri den «herir» aditzarekiko nahaspidea dakar SO-ren kasuan. Beste biek, lehenago aditzera eman dugunez, beste hitz batzuk erabili dituztenez gero, ez dira errepikapenean erortzen, baina gaztelaniatzko «llagar» aditzaren parean hedadura handiagoko eta maila arruntagoko «zauritu» darabilte; egian «sakitu» aditza erabil zitekeen. Azken ahapaldiari buruz, G, O-k «balbucir» aditzaren baliokide egokiak ezezik jatorrizko aliterazioa emateraino hurbiltzen dira. SO eta LA-ren itzulpenak saihestu egiten dira bide horretatik eta kontzeptua ematera jotzen dute galera estilistiko nabariarekin.

8. **bertsoa:** Egia esan, bertso zail samarra da lehen irakurketarako eta «vida» eta «vivir» hitzen arteko kontrajartze eta jokuak esanahi trinkotasun berezia sortzen dute. Itzultzaileek nor bere bidetik jo dute: G-k hitanoa darabil baina bizia gizonezkoztzat pertsonifikaturik ikusten du, horrek estilistikoki dakarren muga nabarmenarekin eta «bizi» aditza behin bakarrik darabilela, nahiz eta bertsoaren amaieran «il-bizian» urruneko konpentsaketa bat egin nahi izan duen. Bestalde «erre» aditzaz osagai semantiko berri eta badaezpadako bat sartzen du seguraski «morir» aditzaren ordaintzat.

O-k ez du jatorrizko jokua aintzakotzat hartzen eta «ez-leku» hitzaz konpentsatzen du aditza. Ondorengo guztia semantikoki eta estilistikoki berregituratu eta berriinterpretatu egiten du jatorrizkotik nabarmenki saihestuz. Beste bertso batzuetako

joeraren kontra hemen alde batera uzten bizia solaskide bihurtzea eta esklamazio elipsoidun bihurtzen du jatorrizko figura. SO eta LA-ren itzulpenei buruz ere O-ri buruz esandakoak ia hitzez-hitzez balio du.

9. **bertsoa:** Lehen «llagar» aditzaz esandakoa gogora dezakegu hemen. Bertsoaren semantika, oro har, itzultzaile guztiek zuzen samar ematen dute baina jatorrizkoak dituek errepikapen eta kontrastezko figurak behar adina konpentsatu gabe: «robado-rob-robaste» G-k «ostu-ostu» ematen du, O-k «lapurtu-lapurtu», SO-k «ostu-lapurtu», LA-k «ostu-ostu».

10. **bertsoa:** G-ren itzulpena nahikoa hurbiltzen zaio jatorrizkoari «deshacellos»-en ordaintzat ezarri duen «aringarri» hitzaren efektu semantiko-estilistiko badaezpadakoa alde batera utziz gero. O-k zeharo berregiten du semantikoki eta estilistikoki jatorrizkoa eta amaieran soilik lotzen zaio sorburu-testuari. SO-aren itzulpenak «enojo» hitzaren ordaintzat ematen duen «sumin» hitza gaur egunean arrunten eta hedauena den adieran oinarritzen da, baina ez poemakoari dagokionean; neke, eragozpen edo LA-k darabilen «antzi» bera ere egokiagotzat jo daiteke.

Ondorio orokor gisa

Donibane Gurutzekoaren poema luze honen lehen hamar bertsoen aipamen irai-zeko hau egin ondoren, eta lantxo honek ezinbestez izan behar dituen mugengak direla eta, gainerakoak miatzeari uko eginik, itzultzaile bakoitzaren eta poema honen itzulpenei buruzko iritzi banaka batzuk emateari ekingo diot.

Artikuluaren hasieran nioenez, lau itzultzaileek bertsoa hitz neurtuz itzultzearen bidetik jo badute ere, bakoitzak bere neurriak ezarri dizkio egiteko horri: hasi LA-k «lira»-ri ondo-ondotik jarraitzeko egiten dituen ahaleginetatik eta O-k egin dituen heptasilabo hiru puntukoetan barna SO-aren «lira» bi puntukoetaraino edota G-ren bertso oindun puntubikoetaraino. Nabaria gertatzen da zenbait gunetan itzultzaileak metrika aldetik bere buruari ezarri dion mugaren zabal-meharra. Puntu honetan, eta bertsolaritzan ez bezala, Prezeptiba finkatu baten gabezia nabariegia da beste hizkuntzetatik poesia kultua euskaratzekoan. Bide horretatik egin diren ahaleginak gorabehera, itzultzaileak eragozpen eta zalantza askorekin topo egiten du. Egia da, ez dagoela jatorrizko molde bera hartu eta mekanikoki errepikatu beharrik LA-ko egin duenez, eta zenbaitetan xede-hizkuntzako prezeptibak eta tradizioak beste bide batzuetatik jotzea gomenda lezaketela, baina O-ren kasuan bezala usuariozko neurriak ezartzeak eritmoa eta giroa aldatzea ekartzen dute eta norbere literatur historiako oihartzun sendoegiak nabaritzen badira egituraren, gehiegizko bezatze hori ekarpenaren arrotasun eta exotikotasunaren kaltetan gerta liteke. G eta SO-arena bezalako tarteko ahaleginak eta saioak ez dira erabat asegarri gertatzen, lehen aipatu dugun prezeptiba horren gabezia eta noraezaren lekuko gertatzen baitira. Dena den, poesiaren itzulpenak alderdi semantiko, pragmatiko eta estilistikoaren artean oreka bat lortu behar badu,

seguraski semantikoa lortzen da orokorrean ongien, O-ren kasua alde batera utzirik, O-ren itzulpenak, hitz lauuko testuetan ere ohizkoa zuenaren ildotik, errazegi eta sarriegi iskintxo egiten baitio jatorrizkoaren semantikari eta beste hiru euskaratzaileek baino subjektibokiago jokatzan du sorburutestuaren aurrean.

Maila estilistikoari dagokionez, gorabehera nabariak agertzen dira O-renean ezezik, baita SO, G eta LA-ren itzulpenetan ere, nahiz eta azken bi hauengan ahalegin handiagoa nabari den jatorrizkoaren ñabardura fonetiko eta lexikalak jasotzen.

Azkenik, alderdi pragmatikoari dagokionez, hau da, irakurleak testu itzuliaren aurrean dituen erreakzio, sentimendu eta ulerkuntza-mailari dagokionez, jatorrizkoak bere irakurle edo dastatzaile garaikide hipotetikoari aurkezten zizkion, eta oraindik gaur egun ere eskaintzen dizkion baino zailtasun eta deskodatzeneke handiagoak eskaintzen dizkiote irakurle euskaldunari, oro har, nahiz eta zenbait puntutan mezu semantiko soila atzematea puntu batzuetan errazturik geratu den, estilistikaren kaltetan.

Fray Luis de León eta San Juan de la Cruz-en garaiko gaztelania eta duela hogeita bat urteko euskara, euskalkien eta batuaren arteko ezbai eta zalantzekin, Hego Euskal Herrian zuen hitz eta egiturazko purismoaren zama astunarekin ez dut uste elkarren lehiakide oso onak gerta zitezkeenik Orixatarraren laudorio guztiak gorabehera. Horretaz Orixe bera ere jabeturik zegoen, Gazteluren «*Musika Ixilla*» obrari egindako sarreran (50. or.) hala baitio: «*Itzultzaileak ez du errua beure; izkuntza da irixten ez dana, oraindik ez baitaukagu ongi egiña gauza guztietarako*». Hala ere, Orixe ez du inolako eragozpenik hurrengo lerroan beste hau gehitzeko Gazteluk Fray Luis de León-en bertsoen itzulpena dela eta honako hau esateko: «*iatorrizkoa berdintzen du eskuarki, ta ez bakan ere, kentzen dio, gure adierazte ugariari ta gure mintzo-mintxoari esker*». Nire iritzian, Orixe gehiegizko balioa ematen zion «*mintxotasunari*» (musikalitateari) beste baliabide estilistiko batzuen kaltetan eta euskal «*itz-urren*» edo sintaxian datzala «*euskeraren indarra*» ere esaten duenean ez dut esango arrazoi ez zuenik teoriarik baina praktikan erabilera zailutzen ez bazaio irakurlearen ulermena erasaten du, pragmatikotasunari dagokionez eragozpenak sortuz. Elipsiaren (eleixiltzeak) baliabideak -Orixe hain maite duen horrek- badu «*xorapide*» (xarma) baina gehiegi erabiltzen denean zaildu egiten du aurreko arazo berbera sortuz.

Baina Orixeren iritzi eta esanei ohar hauek egin ondoren, eta gaztelaniari neurtitzaileko «*arkitzen zizkion bi eragaitzen: puntua (rima) eta azentu astunaren*» eztabaidan sartu gabe, metrikaz ari izango denak horretaz zerbait esango duelakoan, oro har, gaur egun nagusitzat jo daitekeen eta eskua artean ditugun euskaratzaile hauek duten estilistika edo literaturtasun-kontzeptioaz bi hitz esan nahi nituzke. Tituluaren aipamena egitean aditzera eman dudanez, sarreratik bertatik «*Esposo*» Kristo izen bereziaz itzultzean irakurlea bide estu batetik poema irakurtzera bultzatzen dute hari teologiko-kristologiko baten arabera eta ikuspuntu kateketiko batetik zilegi izan litekeen hau errumeste eta pobretze ezin onartuzkotzat jotzen dut estilistikarenetik. Mentalitate honek behin baino gehiagotan erakusten du. Orixeren poeman «*Esposo*»-ren ordezkari «*Kristo*», «*Esposa*»-ren ordezkari «*anima*» eta «*Laztan*» agertzen dira poemak

berezkoak dituen klabeak aldatuz. Hau beste euskaratzaileengan hainbestearaino ez da iristen zorionez, baina halere «violado» itzultzeko «galdu» edo «loitu» hautatzean eta abarretan nabari da.

Azkenik, edozein itzulpenen historikotasuna gogora ekarri beharreko zerbait dela uste dut justiziaz epaitu nahi baldin bada. Edozein itzulpen une jakin bateko itzultzaileak eta irakurleak elkarreraginean dituzten hizkuntz eredua, balio eta sentiberatasun estetiko eta ideologiaren baitan dago. Zentzu honetan, duela mende laurdeneko aurrebaldintzen gainean burututako itzulpena gaur ditugun erizpideen argitan epai daiteke baldin eta itzulpen horrek gaurko irakurleentzat izan lezakeen balioaren ustekizun-jokutan sartu nahi bada. Itzulpenak —kasu bakanen batzuk salbu— egile dituzten itzultzaileak eta aldiak bezalaxe higatu eta zahartu egiten dira, tartean gertatu diren gusto eta balioen aldaketa-abiaduraren arabera. Horrek ez du esan nahi garai berean bizikide gerta ez daitezkeenik iritzi eta gusto ezberdinetako itzultzaileak eta irakurleak, ghettoak eta elkarte hermetikoak ere gerta litezkeenez, baina gaur egun poema honen itzulpen ezberdinok, beti ere aldeak aitortuz estilistika eta pragmatikamailan joera eta ikuspuntu jakin baten emaitza historiko bezala dutela baliorik handiena aitortzera ausartuko nintzateke.

Dena den, prezeptiba bat eta euskal poetika bat biribildu nahi badira, nola jatorrizkoa hala itzulpenezkoa, derrigorrezkoa izango zaigu euskaratzaile hauek aurkitu dituzten zailtasun eta baliabideekin topo egitea eta beraiekin elkarrizketan sartzea beraien zenbait aurkikunde egoki geureganatzeko eta zaharkitutzat jotzen ditugun soluzioetan irtenbide berriak bilatzeko. Bestalde esan beharra dago, azken urte hauetan erabat bazterturik dagoela hizkuntza arrotzetatik euskarara poesia itzultzea eta hau sintoma bat ezezik, benetako lazeria bat da hizkuntza eta kulturarentzat. Hitz lauzko itzulpenak ugaltzen hasi garen unetan, autore klasiko eta modernoek itzulpen ongi zainduak egiteak euskara malgutzen lagunduko luke eta iraganarekiko elkarrizketa berriak sortzen, geure tradizioa eta orainaldia birpentsatuz.

Gauza bat dago argi eta garbi: tradizioaren haria eteteak mesede gutxi egingo digula eta iraganaren ezagueran proiektatzen den etorkizuna izan ohi dela emankorrena. Bestela jokatzeko umezurtzaren sindromean amiltzea eta noraezean kolpe-huts eginez ari izateko arriskura buruz-buru oldartzea litzateke.

X. MENDIGUREN
Donostia

CRITICA LITERARIA DE LAS CUATRO TRADUCCIONES

En este artículo se han examinado las traducciones euskéricas del *Cántico espiritual* de S. Juan e la Cruz. Los traductores han sido Gaztelu, Orixe, S. Onaindia y L. Akesolo; y aunque respeto a la métrica cada uno ha escogido su camino, al intentar todos traducir verso por verso acomodándose al original en el aspecto semántico, pragmático y estilístico ha sido Orixe el que más se acerca al original, y en las otras tres traducciones, junto a los logros puntuales conseguidos, también aparecen desviaciones.

CRITIQUE LITTERAIRE DES QUATRE TRADUCTIONS

Dans cet article on a examiné les traductions basques du *Cantique Spirituel* de Saint Jean de la Croix, les traducteurs étant Gaztelu, Orixe, S. Onaindia et L. Akesolo; même si par rapport à la métrique chacun a choisi son chemin, tous ont essayé de traduire vers après vers, se conformant à l'original quant à l'aspect sémantique, pragmatique et stylistique. C'est Orixe qui s'approche le plus de l'original, et dans les trois autres traductions, à côté d'indéniables réussites ponctuelles apparaissent aussi des déviations.

Dans l'ensemble, ces traductions, réalisées en Biscaien et dans un «Guipuzcoan» postérieur à la guerre, qui nous est familier, doivent être considérées comme des produits d'une méthode de traduction connue à cette époque avec ses lumières et ses ombres.

Joan	Gaztelu*
CANTICO ESPIRITUAL	MAITE KANTAK
<i>Canciones entre el alma y el Esposo</i>	<i>Kristo eta Anima ezkontideen alkar arte olesak</i>
Esposa	Emazteak
<p>1. <i>¿A dónde le escondiste, Amado, y me dejaste con gemido? Como el ciervo huíste, habiéndome herido; salí tras ti clamando, y eras ido.</i></p>	<p>NORA zaitut kuku, Maitea, ni emen lagaz intziri? Zauri nuzu-ta, ba zoaz oreña bezela nigandik; oiuz narraizu, eta Zu igesi.</p>
<p>2. <i>Pastores los que fuerdes allá por las majadas al otero, si por ventura vierdes aquel que yo más quiero, decidle que adolezco, peno y muero.</i></p>	<p>Arditegitik larrera ibilli zabilzten artzai oriek, baldin nere maitena badakuszue, gaixo nagola esan, miñez, il-urren.</p>
<p>3. <i>Buscando mis amores, iré por esos montes y riberas, ni cogeré las flores, ni temeré las fieras, y pasaré los fuertes y fronteras.</i></p>	<p>Ibar-mendi gaindik nere maiteen billa joanen, eztut lore biltzerik, basa-pitziez ez izu, gaztelu ta muga iraganen.</p>
<p>4. <i>¡Oh bosques y espesuras, plantadas por la mano del Amado! ¡Oh prado de verduras, de flores esmaltado, decid si por vosotros ha pasado!</i></p>	<p>Oi baso eta itzalpe, Maiteak eskuz landuak naro, oi zelai ori-urdin, lore pinpiñaz bitxi, esan zuetatik al dan igaro!</p>

* Gaztelu, Orixe ta S. Onaindiaren itzulpenak *Musika ixilla* liburukoak dira; L. Akesolorena argitaratu gabea. Emen Joanen 2.idazkera eskaintzen da. Olerti 2 (1960), 229-233 (Gaztelu). *Musika ixilla*, 180-195 (Gaztelu), 197-202 (Orixe), 203-210 (Onaindia).

Esk. Lekaima-Karmeldarren artxiboan Sanlúcar de Barrameda-n (1.idazkera) (S).

Esk. Lekaima-karmeldarren artxiboan, Jaén-en (2.Idazkera) (J).

Beste olerkietan Esk. G (Granadako Sacro Monte artxibo-museoan) kontuan hartzekoa da.

Orixe	Onaindia	Akesolo
JAINKORAKO MAITE-LELOA	BARNE-KANTA	
<i>Anima</i>	<i>Emazteak</i>	<i>Emazteak</i>
<p>Non zaude kuku, Maite? Emen nuzu mingulin. Oreiñak antzo, iota nadukazu maitemin. Atzetik oska nuzu, ta Zuk neri aldegin.</p>	<p>Nora jun zara, Maite, ni emen lagarik min-garrasika? Orein antzera zoaz iges ni zauriturik; emen nozu deiez, ta Zu gordeka.</p>	<p>Non zara, Maite, ostendu olan nozula izten zotiñez? Oreina lez zara aldendu, ni jo ondoren maitemiñez; deika atzean ni... eta zuk iñes!</p>
<p>Sarobituk muñora ardien zai oana, baldiñ ikusten ba'duk nik maiteen dudana, esaiok nola nagon min, illun, ill-urrana!</p>	<p>Artzaiñak, larre-bidez ortik bait-zoaze muñoan zear, nik maiteen dodan A baldin ba'dakuzue, aul nagola esan, miñez ta iltzear.</p>	<p>Artzaiok, zuen zortea balitz larrez lar or zabiltzela ene Maitea aurkitzea, esaiozue onela: Eri ta miñez ilten nauela.</p>
<p>Zure billa niazu, piztien bildur gabe ez loreak biltzera, mendira, ibarrera arresi ta gaztelu bizkor igarotzera.</p>	<p>Maitasunaren billa mendi-aran orreik zear noake; ez dot loraik artuko, ez ni piztien bildur, zakarrez ta mugaz andik nabilke.</p>	<p>Maitea non idoroko mendi ta ibar naz billa joango; ez dot lorarik jasoko, ez pizti-izurik izango, ta arresi ta mugak iragango.</p>
<p>Oi nere Maite orrek landa zaituten oian eta baso itsuak, esaidazute, esan, belardi loretsuak, emendik igaro dan!</p>	<p>Oi, baso ta leku itsu, Maiteak jarriak eskuz emaro! Oi, lorez jositako barazki-zelai musker, esan zuetatik danez igaro!</p>	<i>Itauna gizakiei</i>
		<p>Zuok, baso eta abaro, Maiteak bere eskuz jarriok; zuok, lorez txit oparo iñaurritako zelaioiok; esan or zear al dan igaro.</p>

Joan

Gaztelu

Las criaturas

5. *Mil gracias derramando
pasó por estos sotos con presura,
y yéndolos mirando,
con sola su figura
vestidos los dejó de hermosura.*

Izakiak

Amaika eder-jario
zailu joan da zuazti otatik,
eta begira zoala
aren itxuraz utsez
bai eder utzi ere jantzirik.

Esposa

6. *¡Ay!, ¿quién podrá sanarme?
Acaba de entregarte ya de vero.
No quieras enviarme
de hoy más ya mensajero,
que no saben decirme lo que quiero.*
7. *Y todos cuantos vagan
de ti me van mil gracias refiriendo,
y todos más me llagan,
y déjame muriendo
un no sé qué que quedan balbuciendo.*
8. *Mas ¿cómo perseveras,
oh vida, no viviendo donde vives,
y haciendo porque mueras
las flechas que recibes
de lo que del Amado en ti concibes?*
9. *¿Por qué, pues has llagado
a aqueste corazón, no le sanaste?
Y pues que lo has robado,
¿por qué así le dejaste,
y no tomas el robo que robaste?*
10. *Apaga mis enojos
pues que ninguno basta a deshacellos,
y véante mis ojos,
pues eres lumbre dellos,
y sólo para ti quiero tenellos.*

Emazteak

Ai, zerk senda nazake?
Egizu noizpait neregana!
Etzaidazu gaurgero
mandataririk bidali,
eztakite-ta nik nai dudana.

Or dabilzkit denak
zure ainbat ederren goresle,
eta naukate minbera;
il-urran ere nagozu
zer zeraz ari dirala zezele.

Baña nola dirauk,
bizia, euregan bizi ezik,
Maiteaz gogoratzez
datozkikan gezitan
il-bizian agola errerrik?

Biotz au zaurtu eta,
nola eztuzu senda nai izan?
Ostu izanik, nola
uzten duzu onela,
ta ostu duzuna ez eraman?

Itzali nere kezka,
ezer ez baitu aringarri!
Zakuszatela begiok,
auen argi bai zera;
Zuretzat bakar nai ditut ekarri.

Orixe	Onaindia	Akesolo
<i>Izakiak</i>	<i>Izakiak</i>	<i>Izakiak erantzuna</i>
Ariñ igaro zaigu zoramen dariola, ta begiratzu utsez, gu ikusiz doala, daukan edertasunez apaindu gaitu ola.	Milla eder-jarioz arin igaro zan ibar otatik, ta begiratu soillez, bere itxuraz bakarrik, guztia itxi euskun eder jantzirik.	Ederrak eder ereñez txara otatik joian lasterrez eta euroi so eginez bere irudi uts bakarrez jantzirik ditu itxi ederrez.
<i>Anima</i>	<i>Emazteak</i>	<i>Emazteak</i>
Ai, nork senda nazake! eman zakit egitan! Ez ibili geiago neri mandaritan, ez dakite mintzatzen nik nai nuken neurritan!	Ai, nok osa nagike! Onekero neure zaitzez, egitik. Ez egidazu igorri gaurgero gezairirik nik naia esaten ez dakidanik.	Oi, nork osatu naike ni? Emon zakidaz Zu Zeu bein baten. Ordainik ez bial eni, ez dakie eta asmaten gogoko dodan ezer esaten.
Andik emendik, Zure zoramen esanekin zauritzenago naute eziñ-esanarekin: iltzear nadukate bar-bar totel orrekin!	Bai, or-an dabiltzanak milla zoragarri Zutaz diñostez: danak zauritzenago, ta il-urren naukie itz erdizko esan-ezin motelez.	Guztiak niri or doaz millaka eder Zutaz kontaten. Eta zauri barriz joaz il-ainik nabe lagaten totel deustenaz esan-mesaten.
Zelan bizirik irau ez-leku ontan biziz, eta maite-geziak amuts geldieraziz, Arek egin-ukitu guziak illeraziz?	Baiña zelan dirauzu, bizi, zagozanez ezin bizirik, ta il-bearrez ba'zaukaz Maiteaz gogartuak, barrena dozula gezik beterik?	Zelan bizirik dirauzu, zeugan bizi ez baldin bazera, ta gezi ilgarrri badozu len Maiteaz zeuk atera edo dakizun guztia bera?
Zauritu baitidazu biotz au, esaidazu, ez al duzu sendatzen? Lapurtu ba'didazu, orrelan utzi bage lapurtu au ar zazu!	Zauritu bait-daustazu, biotz au zelan ez dozu osatzen? Ta ostu ba'daustazu, zergaitik olan itxi, zergaitik ez dozu lapurtua artzen?	Zelan biotz zeuk baitu au zauritu ta ez dozu osatzen? Zelan zeuk ostu dozun au ez dozu Zeutzat eskatzen ta bein ostu au zeureganatzen?
Arren, begion argi, ez eduki mingarri nereok, senda itzezu zaitzaten ikusgarri, Zutzat bakarrarentzat nahi ditut ekarri!	Ito nere sumiña, au itzaltzeko beste ezpaita nainor; zakusela begiok, euron argi bait-zara, ta Zutzat soilki nai ditut izan zor.	Ixildu nire antziok, Zeuk bestek ori ezin dau-eta; asetu nire begiok, euron argi zaitue-ta; Zeu besterik ez dabe nai-eta.

Joan

Gaztelu

11. *Descubre tu presencia,
y máteme tu vista y hermosura;
mira que la dolencia
de amor, que no se cura
sino con la presencia y figura.*
12. *¡Oh cristalina fuente,
si en esos tus semblantes plateados
formases de repente
los ojos deseados
que tengo en mis entrañas dibujados!*
13. *¡Apártalos, Amado,
que voy de vuelo!*
- Esposo
- Vuélvete, paloma,
que el ciervo vulnerado
por el otero asoma
al aire de tu vuelo, y fresco toma.*
- Esposa
14. *Mi Amado, las montañas,
los valles solitarios nemorosos,
las ínsulas extrañas,
los ríos sonoros,
el silbo de los aires amorosos;*
15. *la noche sosegada
en par de los levantes de la aurora,
la música callada,
la soledad sonora,
la cena que recrea y enamora.*
16. *Cogednos las raposas,
que está ya florecida nuestra viña,
en tanto que de rosas
hacemos una piña,
y no parezca nadie en la montaña.*

Ager zakit beingoan,
il nadi zure ederra ikustez;
ain zuzen maitemiñak
ez baitu sendatzerik
begiz begi ikustez bestez.

Oi iturri gardena,
zure zillar-azpegi oietan,
barnean irarrik
dauzkatan begiñoak
erakuts bazenetza bepetan!

Ken itzazu, Maitea,
egan noa-ta.

Senarrak

Zatoz, usoa,
ara muñoa gaindik
zure egal-aizetan
zauriz oreña, t'atsartuz dagoa.

Emazteak

Nere Maitea mendi,
zelaigune bakar, oiantsu,
urrutiko izaro,
ibai durundatsu,
aize ez tien arnas-xistu;

gauaro izar lorea,
goizalde bitartera danean,
murmurika ixilla,
bakartasun ozena,
apari pozgarri maitasarrean.

Axeriak atzeman,
loretan baitago gure maasti;
larrosaz bitartean
egiñen dugu bilgo,
eztedi iñor mendian nabari.

Orixe	Onaindia	Akesolo
<p>Maitemiña sendatzen ba-dakit neke dala; aurpegi eder ori agertu dakidala! Zu begiz ikusteak erioz il nazala!</p>	<p>Erakuts betartea, ta il nagizu zeure zizta ederrez; maite-miña ziurki ez dau ezerk osatzen itxurak ezik ta begiz ikustez.</p>	<p>Arren, zakidaz ageri, il nadin Zure ederra ikusita; maitasunez dana eri Maitea aurrean eukita bestela ezin dozu bizi-ta.</p>
<p>Oi iturri gardena! zillar-leiar orretan agertuko ba'lira nik nere erraietan irarririk daukadan begi oiek bet-betan!</p>	<p>Oi, iturri leiar bizi, zeure zidarrezko nini orreitan nik muiñean josirik daukadazan begiak ñirñir ba' zeuskidaz dardar gozotan!</p>	<p>Iturri leiarrezkoak: ai, zuen zidar-ispilluetan Aren begi ain gozoak banekusaz nik berpetan, tint markatuak nire erraietan!</p>
<p>Ken, Maite! Ba-niazuz egan.</p>	<p>Ken egistazuz. Maite, egazka noa-ta.</p>	<p>Ai, begiok ein albora, egaz noa-ta.</p>
<i>Kristo</i>	<i>Senarrak</i>	<i>Senarrak</i>
<p>Itzul, usoa, orein zauritu onek gainduko du muñoa. Zure egal oietatik arturik otxaroa!</p>	<p>Biur, usoa; or orein zauritua zure egaizez da ageri muiño-gain, eder daula otz-aroa.</p>	<p>Usoa, atzera; or ageri da muiñora zure egadaren aizera orein eria egurastera.</p>
<i>Anima</i>	<i>Emazteak</i>	<i>Emazteak</i>
<p>Nere maitea!: baso, zelai gorde, oiantsu, urrutiko izaro, erreka txurrutatsu, aize maiteen xixtu: ori ta are zera Zu.</p>	<p>Oi, ene Maite!, baso, ibar-arte, zelai bakar oiantsu, oi ez lakoxe ugarte, erreka soiñulari, aize bigunaren maitezko txistu.</p>	<p>Ene Maitea: mendiak, ibar bakarti abarotsuak, ugarteko lur barriak, ur-andi durundutsuak, aize legunen maite-txistuak,</p>
<p>Gau ixil paketsua, goiz-argitik urbilla, bakardi ozenean, musikaren ixilla, maitasuna dakarren apari zuzpergilla!</p>	<p>Gauaro ixil baketsu, argi-nabarretik ur danekoa, musika-ots ixilla, bakar-leku ozena, apari eder maite-min eztizkoa.</p>	<p>Gauaro ixil baketsua, egunsentia ingurukoa, ots ixillezko soiñua, soiñudun bakar-giroa, maitezko apal-ordu gozoa.</p>
<p>Matsa lore daukagu, ta axariak atzeman, egin dezagun xorta arrosaz bitartean, ez baita nabariko iñor gure landetan.</p>	<p>Azeriak eizatu, loretan bai dago gure maastia; larrosaz bitartean egingo dogu txorta; ez begigu iñortxok izu mendia.</p>	<p>Uxatu lukiak urrun, loratan da-ta gure mastia; artean egin dagigun larrosaz sorta gorria, eta iñor barik bego mendia.</p>

Joan	Gaztelu
<p>17. <i>Detente, cierzto muerto;</i> <i>ven, austro, que recuerdas los amores,</i> <i>aspira por mi huerto,</i> <i>y corran sus olores,</i> <i>y pacerá el Amado entre las flores.</i></p>	<p>Ago i, Ipar illa; ator i, Egoa, maite-ekarle, ufaka usaionez, egiok baratzari, Maitea loretan dedin ase.</p>
<p>18. <i>¡Oh ninfas de Judea,</i> <i>en tanto que en las flores y rosales</i> <i>el ámbar perfumea,</i> <i>morá en los arrabales</i> <i>y no queráis tocar nuestros umbrales!</i></p>	<p>Ots, judear neskantil, lili eta larrosa artean urin-usai dirauno, zagozte auzoetan, ez egin otsik gure atean!</p>
<p>19. <i>Escóndete, Carillo,</i> <i>y mira con tu haz a las montañas,</i> <i>y no quieras decillo;</i> <i>mas mira las compañías</i> <i>de la que va por ínsulas extrañas.</i></p>	<p>Kuka zaitte, Kutuna, soizu arpegiz mendi-aldea, ta ez esan iñori: orra izaroz bakar dabilen onen lagun-taldea.</p>
Esposo	Senarrak
<p>20. <i>A las aves ligeras,</i> <i>leones, ciervos, gamos saltadores,</i> <i>montes, valles, riberas,</i> <i>aguas, aires, ardores,</i> <i>y miedos de la noche veladores:</i></p>	<p>Egazti ariñ eta leoi, basauntz, orein jauzkale, mendi, zelai, ugaran, euri, aize, sargori, gaueko laztura begirale.</p>
<p>21. <i>Por las amenas liras</i> <i>y canto de serenas os conjuro</i> <i>que cesen vuestras iras,</i> <i>y no toquéis al muro,</i> <i>porque la Esposa duerma más seguro.</i></p>	<p>Lira atsegin eta sirenen zora-kantuez, arren, bego zuen aserre, ormarik ez ikutu, Lagunak ongiroz dezan atsedeen.</p>
<p>22. <i>Entrádose ha la Esposa</i> <i>en el ameno huerto deseado,</i> <i>y a su sabor reposa,</i> <i>el cuello reclinado</i> <i>sobre los dulces brazos del Amado.</i></p>	<p>Emazteak egin du gogozko atsegin baratzera; bere gogara datza, lepoa makurturik Laztanaren besarte narera.</p>

Orixe	Gaztelu	Akesolo
Ixo! Ipar, erio! Ego, maite-ekargarri! io nere baratzean usaien zabalgarri; an aseko Maiteak loreetan egarri.	Ago geldi, Ipar illa; ator i, Ego leun, maite oroikor; jo ene baratzean, Aren usain-jario, lilietan doke Maiteak azkor.	Geldi, Ipar-aize, ator i, maite pizgarri, ego leguna; gure ortura etorri, ta ixuri eure lurruna, lore-usaiz ase dadin Kutuna.
Iudar neskax-lagunak! lili ta arrosa artean usai onek dirauño, zaute aldamenean; arren, ez egin oles gure etxeko atean!	Oi, judear neskatzak, lore ta larrosak lurrun-ixurka dirauen bitartean, zagoze basaurian, gure etxondoan ez ekin oin-oska!	Judako ninfa gazteak, urrin-jario diran artean larroso ta loreak, zagoze kanpo aldean eta, arren, ez jo gure atean.
Kuka zaitte, Maiteño, menditara begira, gorde ixil-gordea, neskax-lagunak dira izaro galduetan dabillanaren billa.	Gorde zaitetz, Maitetxo, jo begi-zartaka mendi-erpiñak, t'ez gero iñori esan; baña jo, ugarte arrotz, deslai doanaren neskatz-lagunak.	Ostendu zaitte, Maitetxo, aurrez aur beitu mendietarantz: baña ez esan ezertxo; beitu bai irla atzetarantz joakunaren lagunetarantz.
<i>Kristo</i>	<i>Senarrak</i>	<i>Senarrak</i>
Arren, egazti ariñ, leoi, orein txantxari, ibar, mendi, ugalde, euri, aize, sargori, esnai ta amets artean gau latzaren zaindari!	Egazti ego-arin, leoi, basauntz, orein, orkatz jauzkari, mendi, zelai, uralde, euri, aize, sargori, gau ernai igaroen izu dardari.	Zuoi nago, txori laster, leoi, orein, orkatz triskarioi; aran, mendi ta ibai bazter, euri, aize sargorioi eta gau-izu itzargarrioi:
Sirenan zora-kantuz dagizue arago, gorde asarre ori; ez txintik ein geiago andregaiak lo egin dezan seguruago.	Arren, lira atseginkor ta itxas-zora-kantuz dagitzuet zin, bare zuen sumiñak, t'ez ikutu ormarik, Kutunak baketan atsedean dagin.	Lamiñen kanten ederrez, zuoi arentzat arrenka nago; asko dau zuen aserrez, ez jo esian geiago lo egin daian aseroago.
Sartua da Laztana gogo zun baratzean; bere gogara datza loa, bete-betea, lepoa makurturik Maiteren besartean.	Sartua da Emazte opa eban baratz zoragarrian, ta gogo berroz datza, samea makurturik Maite duanaren besarte eztian.	Sartu da sartu laztana bere gogoko baratz maitean eta an da asero etzana burua bake bakean, bere Maitearen besartean.

Joan

Gaztelu

23. *Debajo del manzano,
allí conmigo fuiste desposada,
allí te di la mano,
y fuiste reparada
donde tu madre fuera violada.*

Sagarrondo azpian,
antxe zindudan nerekin ezkondu,
an nizun esku eman,
zure ama galdu zan
toki berean ziñan bizkortu.

Esposa

Emazteak

24. *Nuestro lecho florido,
de cuevas de leones enlazado,
en púrpura tendido
de paz edificado,
de mil escudos de oro coronado.*

Gure oea loretan,
leoi-aitzuloz bilbil ertsia,
purpuraz edaturik,
paketan eraikia,
urrezko milla iskilluz ornia.

25. *A zaga de tu huella
las jóvenes discurren el camino
al toque de centella,
al adobado vino,
emisiones de bálsamo divino.*

Neska gazteak bidez
or dabiltz zure lorratzean,
pindarrez ukiturik,
ardo onduaz birbiz,
Jaingo-urrinte-jario betean.

26. *En la interior bodega
de mi Amado bebí, y cuando salía
por toda aquesta vega,
ya cosa no sabía,
y el ganado perdí que antes seguía.*

Ardangela barrunen
Maitetik edanik, gero ibar
inguru nindoala,
ez nekian besterik,
lenik narraion saldoa ere gal.

27. *Allí me dió su pecho,
allí me enseñó ciencia muy sabrosa,
y yo le di de hecho
a mí, sin dejar cosa;
allí le prometí de ser su esposa.*

An nindun eradoski,
an zerakuskidan jakite naro,
eta naizen au osorik
Ari nintzaion eskeñi,
an nion itzeman emazte antzo.

28. *Mi alma se ha empleado
y todo mi caudal en su servicio;
ya no guardo ganado,
ni ya tengo otro oficio,
que ya sólo en amor es mi ejercicio.*

Arima, dudan guzia,
Aren meneko jarduki baita,
orain enabil saldozai,
besterik ez eginkizun,
maite-izan dut soil ariketa.

Orixe	Onaindia	Akesolo
Elkartuak gaituzu sagar-ondo azpian, an, eskuak emanez senar-emazte giñan; osasuna arki duzu amak galdu tokian.	Sagar-ondo azpian, antxe ziñean bai nigaz alkartu, an neutzun emon esku, zure ama galdu zan tokian bertan zu ziñan osatu.	Sagarpe zorionsua! Antxe zindudan bein emaztetu; an emon neutzun esku ta zure ama bein loitu zan lekuantxe zaitut garbitu.
<i>Anima</i>	<i>Emazteak</i>	<i>Emazteak</i>
Gure oia lore da, leoi-zuloz ertsia, purpuraz iñaurrik, pakeak eraikia; bizkorren iskiloez inguruan iantzia.	Gure oe loreti ingurutik leoi-lezaz esia, gorritan edatua, bakerik eragia, eun urre-ikurdiz eder jantzia.	Lorez dago gure oia, leoi-en zuloz ondo zaindua; errege-estalkiz jantzia, bakean oiñarritua, milla urre-estalkiz koroatua.
Zure urratsen segi nexka gazteak doaz, txinpartak ukituak, birbiz, on dan ardoaz, biotza bizkorturik lainko-usai gozoaz.	Zure lorratz atzetik bidean dabilza neska gazteak, txinpartak ikututa, ardao onduaz txerbel, Jainko-lurrunetan bizkor barneak.	Neska gazteak badoaz zure atzean antxintxikari, txinparten ikututxoaz, ardo gozoa edari, Jainkozko urrin onez igari.
Maiteren ardangelan edana naiz barnean; berriz landa ontara atera nintzanean, saldoa galdu nendun ezer ez oroitzean.	Ardangela ixillean Maiteaz ni ase, ta gero ibarrez abia nintzanean, enekian ezertxo, lengo elia be ez neban jarraiez.	Maiteren gelan edanez egonik, andik kanporakoan zelaian zear joanez danaz azturik niñean, lengo elirik barik ondoan.
An eradoski nindun iakite txit guriaz; an eskeñi nintzaion nerau, dudan guziaz; bere nindula agindu nion, danak utziaz.	An nindun ugatzatu, an irakats eustan eztizko jakintza; nik, ostera, nazana oso neutsan eskiñi betikoz emonik emaztezko itza.	An edei eustan barrua, bere gozoen an emon barri; eta an nik neure burua Aren mende osoz jarri; an emazte-itza emon berari.
Anima, dudan oro eman nion mendeko; enaiz geio saldo-zai, ez dut deus egiteko; ontarako bakar naiz: Maitea maitatzeko.	Kemen ta dodan oro Aren morroitako dot aukerazi; ez naz gero eli-zain, ez nik beste arlorik, maite izan dot soilki jardun berezi.	Nire gogo ta dodanak Arentzat baiño eztau legerik; agur, lengo artzai-lanak, gaurtik ez dot egiterik maitatzeko baiño besterik.

Joan	Gaztelu
<p>29. <i>Pues ya si en el ejido de hoy más no fuere vista ni hallada, diréis que me he perdido, que andando enamorada me hice perdida, y fui ganada.</i></p>	<p>Gaurtik erri-basoz ez ikus ez arki ezpanendi, galdu naizela esan, maitetan ibil-eta galdu-ustez nautela beretsi.</p>
<p>30. <i>De flores y esmeraldas, en las frescas mañanas escogidas, haremos guirnaldas en tu amor florecidas y en un cabello mío entretejidas.</i></p>	<p>Goizalde otxaroan bilduriko lore ta pitxiz egiñen dugu txorta, zure maitetan lore, loturik nere adats-izpiz.</p>
<p>31. <i>En solo aquel cabello que en mi cuello volar consideraste, mirástele en mi cuello y en él preso quedaste, y en uno de mis ojos te llagaste.</i></p>	<p>Nere lepoan bakar zuk egan zenekusan berean, so-eta an atzi geld baitziñan, eta zauri erori begi otako batean.</p>
<p>32. <i>Cuando tú me mirabas, su gracia en mí tus ojos imprimían; por eso me adamabas, y en eso merecían los míos adorar lo que en ti vían.</i></p>	<p>Begira zindudala, zureen itzalak nindun jantzi; maite-samur zindudan, orrela zuten merezi nereak, Zugan joa jauretsi.</p>
<p>33. <i>No quieras despreciarme, que si color moreno en mí hallaste, ya bien puedes mirarme, después que me miraste, que gracia y hermosura en mí dejaste.</i></p>	<p>Ez nazazula gaitzets, baldin lenen beltzeran banintzan, so eidakezu orain, begira ninduzunetik doaez eder bainuzu ni baitan.</p>
Esposo	Senarrak
<p>34. <i>La blanca palomica al arca con el ramo se ha tornado, y ya la tortolica al socio deseado en las riberas verdes ha hallado.</i></p>	<p>Uso zuria kutxara itzuli doa altxuma mokoan, ta orain usapalak maitekide laguna batu du ibaiondo naroan.</p>

Orixe	Onaindia	Akesolo
Aurrera larraínean ikusten ez nautela, esanen dute, naski, maitez galdu naizela: galgarrari nintzalarik irabazi nutela.	Gaurtik ni usa zear ez baldin ba'nabe ikus-idoro, galdu nazala esan, maite-jolaska ibilki, galdua egiñik nabela atxilo.	Gaur gero ez banakuste, ez eta aurkitzen lengo lanetan, galdu nazanik ez uste, neure maitezko bidetan irabazle urten dot, ez kaltetan.
Goiz otxean bilduzko lore ta pitxiekin, egiñen dugu xorta Zure maitasunekin, eta nere buruko ille eio batekin.	Lora ta pitxi guriz —goizalde otzean biok batuta— egingo dogu txorta, Zure maite-suz gara, ene ule batekin alkar eiota.	Lore ta esmeralekin, goiz-ozkirritan zoli baturik sortak dagiguzan egin, zure maitez loraturik, neure ule-izpi bat az loturik.
Lepoan egan bakar nik nenkarren illean; so zenegeion eta bertan lotu ziñean; zauri ziñan erori nere begi batean.	Ule bakarño ari, nik lepoan egaz nenkarrenari ene saman so zeuntson, eta, Zu bertan barro, neure begi baten jaus ziñan zauri.	A, Zuk nire idunean egaz ikusi zendun izpia! A ikusiaz bat ziñean atan gelditu josia ta nire begi batak eria.
Begi oiek neretan eder ziran ixuri; ala nintzan txit maite, ala zuten merezi zuretan zekustena nereetan iauretsi.	Zuk ni begiz jotean begiok ninduen doaiz edertu: alan ninduzun maite, ta alan eben merezi Zugan ekusena, nireak gurtu.	Zuk niri begituago zeure ederra zeunstan ixurtzen, ta ninduzun maiteago, ta neu ninduzun makurtzen Zugan nenkusan gurtzia gurtzen.
Ez esker gaizto neri, nizaizulako beltzun; so egidazu, beintzat, begiz io baininduzun, ederrez, zoramenez, apain iantzi ninduzun.	Enagizu ezetsi, beñiola azal baltz ba'ninduzun aurki; orain so eikedazu, Zuk begitu ondoren eder-dirdira bai eustazun itxi.	Ez naizu, bada, gatxetsi; len Zutzat izan banaz baltz ero, ondo naikezu miretsi Zuk begiratuaz gero ederrez jantzi nozun ezkerro.
<i>Kristo</i>	<i>Senarrak</i>	<i>Senarrak</i>
Ba-dator uso txuri mokoan muskilakin kutxara; uxapala maite zeukan Arekin urondo urdiñetan batu dira alkarrekin.	Uso zuria barriz abarraz kutxara yaku biurtu, baita usapalak bere ur-ertz orlegietan maite eban laguna jarrugi dausku.	Sartu da uso zuritxo arkan abarra bere mokoan; batzandu da usapaltxo nai ebanaren ondoan, ibar orlegien abaroan.

Joan

Gaztelu

35. *En soledad vivía,
y en soledad ha puesto ya su nido,
y en soledad la guía
a solas su querido,
también en soledad de amor herido.*

Bakarrean bizi zan,
bakarrean du kabi egin,
bakarrean darama
bere maiteak bakar,
bakarrean dira maitemin.

Esposa

Emazteak

36. *Gocémonos, Amado,
y vámonos a ver en tu hermosura
al monte y al collado,
do mana el agua pura;
entremos más adentro en la espesura.*

Pozkida gaiten, Maite,
eta goazen zure ederrean
un gardena darion
mendi-muño ikusle,
egigun barnago itzalunean.

37. *Y luego a las subidas
cavernas de la piedra nos iremos
que están bien escondidas,
y allí nos entraremos,
y el mosto de granadas gustaremos.*

Ondorean gorengo
artzulotara joanen gaituzu,
ondo gordeak baitagoz;
eta barnera egiñik,
mingrana-mistela edanen dugu.

38. *Allí me mostrarías
aquello que mi alma pretendía,
y luego me darías
allí tú, vida mía,
aquello que me diste el otro día.*

An ager zaidakezu
nere arimak ain gogo izana,
an emanen didazu,
nere bizi zerana,
aurretik eman zenidana.

39. *El aspirar del aire,
el canto de la dulce filomena,
el soto y su donaire,
en la noche serena
con llama que consume y no da pena.*

Eguras-artze ura,
urretxindorran txiunta gozoa,
ibarra, ango giroa,
gauaro izar narean
miñ gabe sar oi dan sulanboa.

40. *Que nadie lo miraba,
Aminadab tampoco parecía,
y el cerco sosegaba,
y la caballería
a vista de las aguas descendía.*

Iñor ez ikusmira,
Etsaia ere izkutu zegoan;
bare zegon esia,
eta zalditeria
ur-begitik beera zijoan.

Orixe	Onaindia	Akesolo
Bakarrean bizi zan, bakarrean kabia egin du, bakarrean du maite gidaria; bakartasun aretan artua du zauria.	Bakarrean bizi zan, ta bakarrean dau abia egin, bakarrean daroa bere maiteak soilki, bakarrean au be maite-zauriz min.	Bakar bizi zan usoa, bakarrean dau bere kabia, ta bakarrean daroa Maiteak aren bizia, berau be antxe maitez eria.
<i>Anima</i>	<i>Emazteak</i>	<i>Emazteak</i>
Maita igun elkar, Maite, goazen oian-barnera, Zure edertasuna mendian ikustera, muñoari darion uretik edatera.	Goza gaitezen, Maite, ta goazen zure doaz asetzen ur gardena darion mendi-muiño aldera; barnego itzalean sartu gaitezen.	Poztu gaiten, Maite, bion ederra ikusiz zeure ederrean; ta sartu ur garbi darion mendi eta tontorrean; barnago daigun jo txara artean.
Andik gorago dauden artzulo gordetara, aietan bi-biñook ixil sartuko gara, ta puni-sagardoa dedakegu gogara.	Eta andik aurrerantza artzulo goitara goakez gero, txit ostenik bait-dagoz; an bi-biok sarturik, granada-mistela dogu txastauko.	Gero goiko atxetarantz bi biok gara bai zuzenduko, ta arzulo gordeetarantz joanda an gara sartuko, ta granat-ura an miaztatuko.
An erakutsiko Zuk nik gogoan dudana, emain ere didazu —nere bizi zerana— aurreko egun artan an eman zenidana.	An Zuk erakutsiko nik apeta biziz gogo nebana, baita emongo bere an Zuk, ene bizia, beste egunean emon zeustana.	An deustazu agertuko ene gogoak naiien ebana, an niri eskuratuko, neure bizi zaitudana, lengo egunez emon zeunstana:
Aizearen amasa txindorraren txioa, izar dagon gauean inguru on-giroa, min gabe erretzen dun sugarraren lanboa.	Aizearen ats mea, txindor eztiaren maite-leloa, ibar ta ango giroa, izar dan gau narean min gabe erretzen daun sugar-lanboa.	Aizearen bafadea urretxiñolen kantu gozoa, txarako atsein betea, gauaro ederrekoa, sugar errekor minik bakoa.
Etzegon iñor beha, Txerren leize zuloan; esi-barrua pake iabalean zegoan, eta zalditeria ur-begitik zioan.	Etzan iñor begira, etzan Txerrena be agiri iñondik, esia bake egoan, zalditeria barriz ur-begi aurrean joian jatsirik.	Ez dauka iñor begira, Aminadab bere ez da somaten; lasaituz doa estira, ta zaldundia azken baten ara uren aurrez berantz joaten.